

20/05/2009

Ezkio-Itsaso "Hirurehun lagun inguru bildu dira Baserri Egunean Igartubeiti baserri museoan"

Igandean Baserri Eguna ospatu zuten Ezkio-Itsasoko Igartubeiti baserri-museoan, Euskal Herriko baserritar guztiak omentzeko helburuarekin. Hirurehun lagun inguru bildu ziren festara, eta museoaren arduradunak gustura daude jasotako erantzunarekin.

Goizean 10:45ean eman zioten hasiera egitarauari, Hernaniko Txillida Lekun. Gidari desberdinen eskutik hainbat gai jorratzeko aukera izan zen han. Euskal baserriaren historiari zegokion atalean Zabalaga baserriari buruzko hitzaldia eman zuten. 30 pertsonak parte hartu zuten hitzaldi horretan.

Ondorengo ekitaldi guztiak Igartubeitin bertan egin zituzten. Goizeko hamaiketan, eta baserritarrek egiten duten lana eskertu nahian, Ezkio-Itsasoko bi baserritar omendu zituzten: Ezkioko Isidro Lasa eta Itsasoko Bittori Garcia. Lasa urte askoan basogintzan jardundakoa da, eta gaur egun jubilatuta baina baserriko eginkizunei lotuta bizi da. Garciak bere senarrarekin batera oilo eta oilasko haztegia zuzentzen zuen; egun jubilatuta dago, Lasa bezala baserriko eginkizunei lotuta.

Biak aurrean zirela dantzariak aureskua dantzatu zuen eta ondoren Pott zeramika tailerrekoek egindako oroigarri bana eman zieten. Isidro Lasari Kultura Ondarearen foru zuzendari nagusi Pilar Auzmendik eman zion oroigarria, eta Bittori Garciari Nekazaritza eta Landa Ingurunearen Garapenerakozuzendari nagusi Karlos Zuloagak. Baserriko produktuez betetako saskia ere etxeratu zuten bi omenduek.

Bi herritarrek hunkituta jaso zuten omenaldia, eta eskerrak eman zizkieten antolatzaileei haiekin gogoratzeagatik.

Ordu erdi geroxeago Gorka Azkarate eta Gorka Ojanguren Zumarraga-Urretxuko Bertso Eskolako kideak bertsotan aritu ziren, bertaratutakoen aurrean.

Gizon proba, emakumeen partaidetzarekin

Eguerdiko hamabietan gizon probari ekin zioten 14 gizonezko eta emakumezko, sasoi betean daudela garbi utziz. Emakumezkoen parte-hartzea, gainera, nobedadea zen, lehen aldiz aritu baitira jendaurrean tiraka. Bi taldetan banatu ziren: talde bakoitzean bost gizonezko eta bi emakumezko aritu ziren. Talde bateko parte-hartzaileek laranja koloreko elastikoak zituzten jantzita eta besteek kolore urdinekoak.

Nesken parte-hartzeaz gain bazeuden beste bi berrikuntza ere. Batetik, bi taldeak plazara batera atera izana, orain arte lehendabizi talde batek eta gero besteak ekiten baitzion probari. Bestetik, proba-harriaren ordezturadineko egitura erabili izana kirol lehiarako. Gorka Sasieta parte-hartzaileak jakitera eman duenez aldaketa bi egiturak berdinak izateko egin dugu, harri berdinak aurkitzea zaila baita. Egitura bakoitzari barruan pisua jarri zioten, eta talde bakoitzak guztira 700 kilo mugitu behar izan zuen.

Igartubeiti baserriaren aurreko aparkalekuan egin zuten proba. 36 metroko plazan eta inguruan jende ugari bildu zen indar erakustaldia jarraitzeko. Talde batekoen eta besteakoen alde oihuak egin zituenik ere izan zen.

Esatari lanetan Ino Ugarteburu aritu zen, Zumarraga-Urretxuko Herri Kirol Elkarteko kidea. Elastiko naranjak zituztenek 32,5 plaza egin zituzten eta elastiko urdinak zituztenak 32ra iristeko bi metroren faltan geratu ziren, garaipena laranjen partera joanez.

Proba bukatutakoan txalapartariak egin zuten saioa.

XVII. mendeko familia bizirik

Goizean zehar umeentzako ekitaldiak egin zituzten eta trikiti doinurik ez zen falta izan.

Ezkio-Itsasoko eta Yartu elkarteko bost kidek, XVII. mende hasieran baserrian bizi izandako Kortabarria familia antzeztu zuten. Antzezpenak kanpoan egin zituzten: liho belarra moztzen, artoa aletzen eta baratzean baba jasotzen jardun zuten.

Goizean zehar baserriko euskal oilaskoak erretzen ere aritu ziren, eta ondoren pintxo moduan zerbitzatu zituzten. 400 bat oilasko pintxo saldu zituzten, gaztarenak beste 100; lehendabizikoak bi euroan eta besteak euro batean. Bildutako dirua Hare Haizea Urola Garaiko Sahararen Lagunak Elkartekoentzako da.

Igartubeitin egindako sagardoa ere dastatu ahal izan zen. Giro bikaina izan zen igandean Igartubeitin.

Estitxu Imaz